

...eta

# Kitto!

843 zkio.  
2013-IV-12



## Agur 44 urteko jardunari

### EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*



# ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



## ODONTOLOGIA OROKORRA

### ORTODONTZIA

Invisalign < BERRITASUNA

Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < BERRITASUNA

Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < BERRITASUNA

### PERIODONTZIA

Diagnosi digital periodontala < BERRITASUNA

Analisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoak < BERRITASUNA

Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < BERRITASUNA

LASER diodoa

Mentuak hortzoietan

### AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak

Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin

Barneko hortzak ateratzea

### INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak

Hezur-birsortzea biomaterial bidez < BERRITASUNA

Hortzoi-birsortzea

Inplantologia transzigomatikoa < BERRITASUNA

Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < BERRITASUNA

### PROTESI FINKOA

Metalezko koroa libreak < BERRITASUNA

Zirkoniozko koroa puruak < BERRITASUNA

CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < BERRITASUNA

Karillak

### MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

### ODONTOPEDIATRIA (PADI)

### ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

### MUTUA ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD, CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, OCASO, AVANTSALUD, PADI...

## ZERBITZU BERRIAK

### ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

**08:00**etatik **22:00**etara

zapatuetan:

**10:00**etatik **14:00**etara

### LARRIALDIETARAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA

**24 orduz**  
GALDETU



### GALDETU

#### 2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan irakasleak gara.

Ospea duen zentroa gara.

### ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:

Pazientea jaso eta etxera itzuli

**GALDETU**



# IRAZABAL

clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR

Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**Promozio bereziak BESTE HILABETE BAT luzatuko ditugu!!!**  
**Orain APIRILAREN 15-era arte, kupoi hau aurkeztuz!!!**

**%20** Deskontua hortz-inplanteetan\*

\*Soilik hortz-inplanteetarako

**%10** Deskontua larunbatetan egindako tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa  
Hortzetarako arkatx zuritzailea  
Higienea ..... **525 €**  
BESTELAKO PROMOZIOAK: **GALDETU**

# ASTEAN ESANAK

"Alzheimerra duen gaixo batek egun osoko zaintza behar badu, kasu horretan soldata duina ordaintzea hiru langileren soldata ordaintzearen parekoa izango litzateke, eta familiek ezin dute hori egin"

(TRINIDAD VICENTE, SOZIOLOGOA)

"Aspirina da jende gehien hiltzen duen medikamentua, gehien hartzen dena delako, dituen arriskurik jakin gabe. Dosi txikietan babesle kardiobaskular bikaina da, baina dosi analgesikoetan hemorragia gastro-intestinala sor dezake"

(JOAN-RAMON LAPORTE, FARMAKOLOGOA)

"70eko hamarkadako urte oparoetan 1.400 ontzi eta 15.000 arrantzale izatetik, 2012. urterako 190 ontzi eta 1.800 lagun bakarrik izatera igaro gara, euretako %45 inguru atzerriarrak: gehienak senegaldarrak eta hegoamerikarrak"

(LEO BELAUSTEGI, ARRANTZALE-OHIA)

"Bi ekonomialari mota daude: aberatsak are aberatsago bihurtzeko lan egiten dutenak eta txiroei horren txiro ez izaten laguntzen diegunak. Gehiago jakingo bagenu, justuagoak eta orekatuagoak izango ginateteke agian"

(JOSE LUIS SAMPEDRO, HUMANISTA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

JARDUNIAN IBILLI/EGON.- Zeozertan ibili. Hitz egin. "Beti holan egingo baneukek ni bai gizona formala, auzuak be ez litzakiaz jardunian ibilliko".

JARDUNKERIXA.- Esamesa. "Zuk esan ditzuzun gauza guztiak, jendiaren jardunkerixak".

JARDUNKIZUN.- Zeresan. "Haren ezkontziak jardunkizuna ugari emon dau behintzat".

## eskutitzak

### GELTOKI INTERMODAL BATEN ALDE

Eibarko PSOE-k Matsariako beheko aldean geltoki intermodal bat jartzeko aukera seriotasunez aztertu eta eztabaida hori Hirigintzako Aholku Kontseilura eraman beharko lukeela uste dut. 1997ko iraileko "Eibarko Diagnosi sozio-ekonomikoa"-ren 31. orrian ondorengoa aipatzen zen: "autobus-geltoki bat ere proposatzen da, tren-geltokitik gertu". Askok uste dugu garraio publikoaren zirkulazioa Matsariako beheko aldean zentralizatu beharko li-

tzatekeela: trenak eta autobusak; hiri-garraiorako geltokiak antolatu daitezke, baita taxi-bus edota taxi-zakero ere, saihesbidearen sarrera-irteera aprobetxatuz. Oinezkoen trafikoak Errebal-Estaziño-Matsaria ingurua erdiratu egingo luke. Aldi berean, inguru horretan aldirietako aparkalekua eraikitzeak herriko komertzioari hainbeste behar duen bultzada emango lioke.

N.J.A. (15.343.073A)

### VALENCIAGA MEMORIALEKO ZENBAKIA

Domeka goizean jokaturako 42. Valenciaga Memorialean banaturako zozketan, 8.020 zenbakiari egokitu zaio Guillermo arraindegia, Oberena harategiak eta Frutas Pilar-ek babestutako saria.

EIBARKO TXIRRINDULARITZA ELKARTEA



Euskara Elkartea

ARGITARRATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. HELBIDEA: Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. FAXA: 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com Elkartearen E-MAILak: elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. KOORDINATZAILERA: Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. HIZKUNTZA ARDURA: Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATERA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tfnoa: 943 20 67 76. AZALEKO ARGAZKIA: Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. TIARADA: 8.150 ale. INPRIMATEGIA: GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! LEGE-GORDAILUA: SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria



Inauguraziño-ekitaldixan hainbat agintari izan ziran.

## IK4-Teknikerren instalaziñuak inaugurauta

Eguaztenian inaugurau zittuen modu ofizialian IK4-Teknikerren instalaziño barrixak. Gipuzkuako Parke Zientifiko Teknologikuari oin dala gitxi batutako Polo Teknologikoko instalaziñuak 28.000 metro karratuko azaleria betetzen dabe eta bertako laborategi, areto zuri, ikasleku, areto espezializatu eta azpiegiturak laster IK4-Teknikerreko ikertzaillien eskura ipiñiko dittue. Horri esker, teknologixarik aurreratuena enpresari eskintzeko moduan izango dira. IK4-Teknikerreko arduradunen berbetan, "errorra Euskadik I+G+Baren alde egindako apustuaren erakusgarri inportantienetakua izatia da, instalaziño barrixak emoten detsen gaitasunak bultzatuta".



## Hasi da errenta kanpaiña

Aurten egin biharreko 2012. urteko errenta aitorpenak aurkezteko epia datorren astian, apirilaren 16xan zabaldu eta ekaiñaren 25ian itxiko dabe (biak barne). Aitorpenak, betiko lez, modu diferentietan presentatzeko aukeria eskintzen dabe: autolikidaziño proposamena jasotzen dabenak hori onartuta nahikua izango dau eta, bestela, mekanizaua zein internet bidezkoa egin leikez.

Ogasunetik azaldu dabenez, autolikidaziñorako proposamenak posta bidez bidaltzen hasitta dagoz eta guztira 37.062 zergadunek jasoko dabe. Informaziño guztia, gidaliburuak eta bestelako argibidiak barne [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) webgunian eskuratzeko moduan dagoz eta telefono bittartez laguntasuna eskatu nahi dabenak, barriz, 902 100 040 telefono zenbakira deittu leike.

## Bixar jaialdixa egingo da Errebalean

Aurreko asteburuan Errebalean egittekoa zan jaialdixa bixar egingo dabe, aurreko astebururako iragarritta eguan eguraldi eskasarengaittik azken orduan bertan behera lagatzia erabagi eta gero. Zona 10 alkartekuak Sabadell Guipuzcoano bankuarekin alkarlanian antolatu daben jaixa Errebal kaleko aparkalekuan izango da, 11.00etan hasi eta 15.00ak bittartian: 11.00etatik 12.00etara umiendako bizikleta eta pedal bariko motorren lasterketak egingo dira (adiñaren

arabera hiru mailla bereiziko dittue, 4 urtera arte, 4-6 urte bittartekuak eta 6-8 urte bittartekuak); 12.00etan ginkarnari ekingo detse (kaskara-batzia, zaku-lasterketia...); eta hórrekin amaittuta, 13.00ian Sakaren zezentxo eta ponixak ailllegauko dira. Hórretxek girtzen Arno DJ-k jardungo dau, photocall-a be egongo da eta graffitilarixak hormak margotzen ibilliko dira. Joko eta bestelakuetan parte hartzen dabenendako domiña eta garaikurrak banatuko dittue.



Arno DJ-ak girtuko dau Errebalgo jaialdixa. LEIRE ITURBE

## "Zure diruarekin" dokumentalaren proieksiñua

Egoaizia eta Eibarko Fiare Tal-diak antolatuta datorren martitzenian (hillaren 16xan) "Zure diruarekin" ("Con tu dinero"), Setem GGKEak egindako dokumentalaren proieksiñua egingo dabe Portalean (areto nagusixan) 19.00etan hasitta. Eibarren emongo daben dokumentala EAEko hiru hiriburuetan proiektatu dabe eta oso harrera ona euki dau ikustera juan dan jendiaren artian. Proieksiñua amaitzian Setem eta Fiareko kide birekin berbetan jarduteko aukeria euki dau nahi dabenak.

Setem posible diran kanbiuak sustatzen dittuan Gobernu Kanpoko Erakundia da eta bertako kidiak, genero ikuspe-

gittik abiatuta, ekoizpen, konsumo eta finantza-eredu jasagarrixago, bidezkoago eta arduratsuaguak bultzatzeko biharrian jarduten dabe. "Zure diruarekin" dokumentalarekin gizartiar bere dirua zertan erabiltzen daben argitzia billatzen dabe eta, horrekin batera, bankuak oker egitten dittuan hainbat kontu agerixan laga nahi dittue.



## II. Errepublikak goguan

Asteburuan hainbat ekitaldiren gogoratuko da II. Errepublikaren aldarrikapenaren 82. urtemuga guri: "Ahaztuak 1936-1977" alkartekua zapatuan gogoratuko dabe Errepublikaren aldarrikapena, Untzagan 13.00etan hasiko dan ekitaldixan eta "Gora Errepublika!! Gora Herri Borondatea!!" goiburuarri jarraituta. Domekan Eibarko Sozialistak Errepublikaren banderia ipiñiko dabe Untzagako Casa del Pueblo-ko balkoian, 11.30xetan eta jarraixan txapliguak botako ditue Txaltxa Zelaixan.

Eta Gazte Komunistak, azken urtiotan egindakua bidetik, domekan goizeko 10.00etan urtengo dira Ermuko Cardenal Orbe plazatik, Eibarreraño oiñez etortzeko



(eguardi partian aillegauko dira Untzagara). Gazte komunisten martxarako goiburua "Jota ke Errepublika lortu arte" izango da.

## Eibar K.E.-kuak Garagunian bisitan

Eibar foball taldeko Gaizka Garitano eta Jon Errasti eguaztenian San Juan kaleko Garagunera juran ziran, bertan eguna emoten dabeneri bisitan. Garagunekuak pozarren hartu zittuen eta, gaiñera, kirolarixeri hainbat galdera egitteko eta talde armagiñari animuak emoteko aprobetxau eben hitzordua.



Errasti eta Garitano Garagunekuekin.  
SILBIA HERNANDEZ

## autuan

### DIRU-LAGUNTZAK

24.800 euro banatuko ditte Udalak irabazi asmorik ez daken alkartien artian, beti be diru-laguntasunerako eskaeria Pegoran sasoiz (apirillaren 30erako) entregatzen badabe. Informaziñua be bertan eskatu leike.

### ALARGUNEN BATZARRA

Euskadiko Alargunen herrialde maillako batzarra Eibarren egingo da, apirillaren 21ian, 10.30xetatik aurrera Coliseo antzokixan. Batzarra eta gero, nahi dabenak 14.30xetan Untzaga Plazan egingo dan bazkarixan parte hartzeko aukeria eukiko dau.

### 1958-XAN JAIXOTAKUAK

Urrixaren 5ian alkartuko dira urte horretan jaixotakuak alkarrekin bazkaltzeko. Juateko asmua dakanak 75 euro sartu biharko ditte 2095 5035 00 9112629103 kontu korrontian.

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

**FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

**Helbidea**  
URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreetako  
1. solairua  
☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

**EIBAR**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

1 Kardiologia	11 Barne Medikuntza
2 Zirugia	12 Radiologia
3 Dermatologia	13 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	14 Traumatologia
5 Anlisi Klinikoak	15 Koloproktologia
6 Ortodontzia	16 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	18 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	
10 Neurologia (BERRIA)	

asteko

12

datua

bikote osatu dittue  
Berriketan programarako.  
Bertakuekin batera jardungo  
daben atzeritarren artian  
5 marokoar, 3 nepaldar,  
3 pakistandar eta Maliko  
lagun bat dagoz. 10 astian  
alkar ezagutzeko eta  
hizkuntza praktikatzeko  
batuko dira.

## Ez dabe zuhaitzik botako

Oin dala aste batzuk aldizkariko erredakziñuan Markeskua inguruko arbolak salbatzeko ekimenarekin bat egitteko eskaeria jaso genduan, posta elektronikuaren bittartez. "Ni" siñaduriarekin zabalduetako mezuaren arabera, Markeskua jauregixaren parian, espaloian daguazten zuhaitzak botatzeko asmua "ei dake" eta, horrelakorik ez egitteko, mezua "zuhaitzak gustatzen jakozen eibartareri" bidaltzeko eskatzen dabe "kate luze-luze bat eginda salbatzeko". Edozelan be, Udaleko Zerbitzu sailleko arduradunak zuhaitzak mozteko iñolako asmorik ez dakela baieztatu desku eta, gaiñera, oin dala gitxi hórretxen parian beste bost arbola landatu dittuela azaldu desku.



## Deparkelen aldeko pintxo-potia

Eguenian Parkinsona mundu maillan gogoratu zan eta, horren aitzakixarekin, Deparkel Debarrena Parkinson alkartekuak ekitaldi berezixa antolatu dabe bixar zapaturako: 12.00etatik 15.00etara eta 19.00etatik 22.00etara Untzagan zabalduko daben txosnan euro bi pagauta edarixa (urteko ardaa, zuritua edo ura) eta pintxua (bost pintxo aukeran) hartzeko aukeria eukiko dau nahi dabenak. Jaialdixari esker alkartiak bere jarduerak garatzeko bihar daben aurrekontuari laguntzeko dirua batu nahi dabe. Taberna-



ren aldamenian, bestalde, alkartiaren zein Parkinson gaixotasunaren inguruko informaziñua egongo da eskuragarri.

## Indar okupatzailien gaiñeko mahai-ingurua



Gaur arratsalderako mahai-ingurua antolatu dabe, "Euskal Herriko indar okupatzaille errepresibuen gaiñian jarduteko". Horretarako Oñatiko Fan Hemendik eta Altsasuko Herri Mugimenduko hainbat kide gonbidatu dittue, "euren esperientziak azaldu eta eibartarrok gai horren inguruan dittuen ardurak entzun eta konpartitzeko". Mahai-ingurua 18.3xetan hasiko da Eibar-ko Bizikleta Plazan (Galeriaseko par- kian) eta eguraldi eskasa egiñ ezkeru, udaletxeko arkupietan egingo dabela iragarri dabe. Gaixaren gaiñian interesa dakan edozeiñek izango dau bertara agertu eta parte hartzeko aukeria.

**Bodegas Muga-rekin MARIDAJE AFARIA**

**Apirilaren 18an**  
21.00etan  
**Chalcha Jatetxean**  
Prezioa: 50 € BEZa barne

**EMAN IZENA**  
Chalchako barran  
943 20 11 26  
info@restaurantechalcha.com

**ENOLOGOA: Vicente Almodovar / CHEF: Joseba Bergara**

**CHALCHA - nean**  
MENUA

APERITIBOA: Berdel solomoa txingarretan, bilbotar erako zizen pisto ohean  
Zigala-buztan arrautzatzatuak piperrada gainean (ardoa: MUGA BLANCO, 2012)  
Foie royal-a Pedro Ximenez erara (ardoa: MUGA CRIANZA, 2009)  
Bakailaoa txingarretan, pil-pil erako panadera eta tomate deshidratatua (ardoa: PRADO ENEA, 2005)  
Arkume-mollejatxoak onddo eta gari-esparragoen erregosian (ardoa: TORRE MUGA, 2009)

Marrubi eta cava finantza-tarta (cava: CONDE DE ARO BRUT VINTAGE, 2010)

Pikatzeko: Te-pastak

**chalcha** RESTAURANTE JATETXEA

**Muga**

**f**

**Funeuskadi Eibar**  
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27  
Bulegoa: Bidebarrieta, 6

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
© 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

**GRUPO Funeuskadi**  
El primer grupo funerario de Euskadi

• Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de los Monteros •

100 ANI BURBU BUENAS Certificados F. Teatarios y Crematorios



PAULA KASARES (soziolinguista)

## “Seme-alabei euskara transmititzeko moduak bere geroa baldintzatuko du”

*Euskararen Transmisioari buruzko III. Mintegia egingo da maiatzaren 7an Portalean, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta eta aurreko mintegi guztietan parte hartzen izan den Paula Kasares soziolinguistak amaitu berri duen doktore tesiaren gaineko hitzaldia emango du. Mintegirako izen-ematea maiatzaren 3ra arte egin daiteke (normalizazioa@etakitto.com helbidean edo 943200918 telefonoan).*

**- Zure hitzaldiaren izenburuak dioenari helduta, nolakoa da Nafarroan euskaldun haztea?**

Euskaldun haztea euskarazko sozializazioari errateko erabiltzen dut. Haurrak euskaldun hazteak, hau da, euskaraz sozializatzeko eguneroko bizi egoera arruntetan euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera ohikoa eta nahikoa izan dutela erran nahi du. Nafarroako haurrak euskaldun bilakatzeko prozesua aztertzeak familiek umeak euskaraz jabe daitezen bermatzeko izan dituzten jarrerak eta joaerak miatzea erran nahi du. Gurasoen saiakera horietan funtsatzen da, hein handi batean, euskararen belaunez belauneko jarraipena.

**- Irurita adibidetzat hartu duzu galtzear zegoen euskara nola berreskuratu den ikertu eta azaltzeko. Zer gertatu da?**

Ikerketa, nire doktore tesia, zabalagoa izan da. Bi kasu azterketa egin ditut, bat Iruritan (Baztanen) eta bertzea Iruñean. 12 urte bitarteko haurrak dituzten ha-

marna familia hartu eta neska-mutiko horiek hizkuntza aldetik nola hazten ari diren arakatu dut. Toki bietan euskararen belaunik belauneko jarraipena eten zen. Iruritan Gerra Zibilaren ondotik eta ez herriko familia guztietan; eta Iruñean anitzez lehenago, XIX. menderako, hiriko sendi gehienetan. Jarraipena kaskailduta zegoen toki horietan familiek hizkuntza berriz “etxekotzeko” eta umeak euskaraz hazteko prozesua nola egin duten aztertu dut.

**- Eta nolakoa izan da prozesua?**

Batik bat 1970 aldera sortutako belaualdiari, oraingo haurren aita-amei, so egin diet. Gehienetan orain aita-amak diren hiztun horiek ez zuten euskara txikitik gurasoengandik ikasi, ez ziren euskaraz eskolatu, baina batzuk euskaraz jabetu eta gero umeak euskaldun hazi nahi izan dituzte. Bizi izan dituzten baldintza soziohistorikoetan, guraso horiek funtsezko gakoa dira euskararen jarraipenerako, euskararen aldeko portaerak

izan baitituzte. Dena dela, transmisioa ez dago soilik gurasoen eskutan.

**- Eibarren antolatutako mintegi guztietan izan zara. Zer deritzozu ekimenari?**

Gaurko hiztun gazteek hurrengo hamarkadetan seme-alabei hizkuntza transmititzeko jokatu duten moduak euskararen geroa hein handi batean baldintzatuko duela esatean adostasuna dago, baina, paradoxikoki, esparru akademikoan ez da euskararen jarraipenaren gainean ikerketa zientifiko lerro sistematikorik jorratu. Eibarko mintegiak bereziki hizkuntza transmisioa lantzen du eta azken urteotan antolatu diren saio monografiko bakarrenetakoa da. Ikerketa arlo honetan gogoeta teorikoa zabaltzeko eta esku hartze esperientzien elkartruckerako erreferente bihurtzen ari da. Hasi zenetik ni urtero gonbidatzea zinez eskertzen diet ...eta kitto! Euskara Elkarteko arduradunei.

ELKARRIZKETA OSOA: etakitto.com



## CONCHI ERKIZIA IRIONDO

2013ko apirilaren 7an hil zen,  
88 urterekin

**FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA**

gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



# "Bezeruak? Baitta lagunak be!"

Kareaga joierixia likidaziño sasoiari

Dendia itxi bihar dabela-eta, asko harritsu dirala diñue. Baiña egoeriak horretara eruan dittu. "Gauza politak bizi izan dittugu. Bizitza emon dogu hamen, baiña hau amaittu da". Oin likidaziñua ipiñi dabe martxan eta horren arabera itxiko dabe bitxi-dendia. Tradiziño familiarrak gidatu dittu euren pausuk, beti be "bezeruak zor gentsan errespetuarekin" eta, ohiturak ohitura, ixa mende erdixari egin detse aurre. Sortzailliak izan dira euren egin-biharrian eta, azken egunetan be, bezeruen fidelitasuna eskertu nahi dabe.



Isabelek, Mertxek eta Amaiak, bezeruak eukitiaz gain, lagunak be egin dittue urtiotan. SILBIA HERNANDEZ

**E**z da erraza izan, baiña erabagixa hartu bihar izan dabe. Dendia ixtekua. "Penia", askok esaten detsen moduan; "penia" eurak sentitzen dabena. Gurekin egon ziran goizian be danetarik izan eben Kareaga bitxidendan: deixak goiz guztian, mobimendu asko, agur esan biharraren "bajoitxua"... Eibarko beste

"betiko dendetako batek" atiak itxiko dittu oiñ hasi daben likidaziñuarekin amaitzerakuan. Krisixak derrigortuta hartzen daben erabagixa da eta, batzuk "oin bizitzera" esaten detse nian, eurak ez dabe holan sentitzen. Amaia Kareagari eta Isabel Uberuagazumarani ez jakue jubilatzeako ordua aillegau oindio, baiña "urtetan disfrutatu daben biharrari agur" esango detse bitxitegiako persiana jaistiarekin batera. Hainbeste urtetan bertan jardundako "tia Mertxek" -azken hau oin dala urte batzuk jubilautekua bisitia egin detse, gurekin egoteko hitzordua puntual errespetatuta.

## Denda "familiarra"

Urrezko ezteiak ezin izan dittu bete Kareaga joierixiak. 1969xan zabaldu zeben: "Julixuaren 15ian izan zan, sasoi hartan Pedro relo-

jeruak zekan dendan". Jose eta Mertxe Kareaga anai-arrebak eta Miren Azkarraga euren koinatia izan ziran lehelenguak bertan biharrarian. Gero etorriko izan Isabel, "Errekatxun geunkan taillarretik dendara jaitsiko zana". Amaia, Joseren alabia, 18 urterekin hasi zan, "estudixatzen" zeguanian oindio, "Mirenen errelebua hartzeko". Eta Esther Amaiaaren ahiztiak be emon zittuan urte batzuk dendan, "tia Mertxe jubilatuta zanian". Famelixarekin etara izan dabe negoziua aurrera (Isabel famelixakotzat dake) eta bezeruekin izandako tratua "familiarra" deitzen dan horretan sartuko geunke. 44 urteko ibilbide horretan disfrutau egin dabe, gaiñera. Zergaittik? Gauzak saltzera ez ziralako mugatzen: "Zerbitzu onena eskintzia izan da beti gure nahixa".

## Bezero fiñak

"Suerte haundixa izan dogu" diñosku hirukotiak, euren bezeruekin izandako hartu-emonaz

berba egitterakuan. "Behin dendara etorritta, ez deskue ihes egin. Bezero leialak izan dira eta hamen inguru guztikuak: eibartarrek batera, Soroluzetik, Elgoibartik, Markiñatik, Ermutik... etorri jaku jentia. Baitta Donostiatik eta Bilbotik be". Hartu-emon horretatik gauza asko ikasi dabela diñue hirurak, "etxe guztietako jendia pasau dalako hamendik". Gaztiak eta adiñian aurrera juandakuak, dirudunak eta ahorradoriak... "baiña danak oso fiñak ordaintzen, guk geure aldetik lagundu detsegun arren, plazoka ordaintzeko aukeria eskinduta". Bezeruari materixala etxera eruatzen lagatzia be ohizkua zeken: "Beti fixatu izan gara eta jendiak holan erantzun dau. Gitxi gorabehera aurpegixan igartzen jako baxotxari zintzua dan" esaten deskue. Bezeruak baiño gehixago "lagunak izan diralako".

Jai berezixen inguruan izaten zeben eskaera gehixen: "Sanjuanetan, Gabonetan... eta baitta julixoko pagiarekin, modis-



Jose Kareagak lan egitako estilua sortu eban, "kritikua, baiña maitasunezkoa".



tillen egunaren bueltan". Jau-nartze, bataio eta ezkontzekin batera, jakiña. Dana dala, sasoiak-sasoi, gauzak aldatzen juan dira: "Urria asko jaitsi da; lehen asko eskatzen zan, hain garestixa ez zalako. Oin gureta-ko be garesti dago. Ilusiñua iza-tiaz gaiñ, inbersiñua bazan-eta". Zillarrak hartu dau azken aldixan haren tokixa, "eta gero baitta galtzairuak be". Bron-tzeko figurak ondo saltzen zi-ran sasoi be egon zan. Gaiñe-ra, ezin da ahaztu oin bitxitegi-xak kompetentzia haundixagua dakela: "Europa-dendetan da-netarik dakazu ixa eta internet-ek be kalte haundixa egin des-ku". Sasoi batian Kareagian sei lagun biharrin egotetik gaur egun birekin lasai antzian moldatzeraiño.

#### Artia geneetan

Kaietano Kareagak bere ait-titxaren -"metalak grabatzen eta damaskinua egitten artis-tia izan zan"- eta Mateo aittaren bidia irarritu zetsan Josek. Azken hau pintore eta grabado-

re fiña izan zan: Mertxek, bere arrebiak, "Argentinan-eta kua-druak dittu oindiok" diño. Eta, hirurak batera, haren `meri-ttuak` ekartzen dittue memori-xara: "Iñoiz be ez zeban kopixa-tzen, berak sortzen zeban. Kre-atibua zan oso". Ez hori baka-rik: "Bere sasoirako oso aurre-ratua zan diseiñuan, ausarta gaiñera" gogoratzen dabe. Aldi berian, klasikortasuna eta mo-demotasuna batzen zittuala: hi-rurak bat datoz horretan. Ingu-rukuak, dana dala, ez dira kan-potarrak izan arlo horretan: Mertxek Marcano maisuarekin lau urte emon zittuan Dibujua ikasten; Isabel harro dago eure-kin ikasittakuarekin; Amaiak, bere aldetik, Leire bere ahiztia aittatzen dau famelixakuen traiektorixia jarraitze aldera -"harek daka benetan.gaittasun hori"- . "Gehixenbat bista onak lagundu desku beti" diño `tia Mertxek`.

Urria, zillarra, platinua, kolo-retako pedrerixia, diamantiak... "Metal nobliekin" egin dabe lan urte guzti hauetan, beti be "pie-za bakotxa artelana dala" siñes-tuta. "Gure aurrekueatik, eta

Joserengandik batez be, gauzak ondo egin bihar zirala ikasi dogu" diño Amaiak, "baiña hobeto egin zeikiala ja-kinda, berak esaten zeskun moduan". Gau-za asko egin dittue en-kargu bittartez, batzue-tan bezeruak rebista baten ikusittakua eruan eta halakua gura zebala esanda, gero haren ara-bera montatzeko: "Sa-soi batian bestelako glamourra zeguan bitxi-xen inguruan; gaur egun pret a porter-a nagusi-ttu da". Ados dagoz jendi-ak lehen joiekin gehi-xago disfrutatzen zebala esate-rakuan: "Orokorrian kalia be beste poztasan bat nabaritzen zan jendiaren artian. Astebu-ruetan jendia preparauta urte-ten zan kalera, koketerixia pun-tu hori baeguan, astero peluke-rixara juatia eta halakuak". De-mandia be ez zan gaur egungua: "Perladun koillarrak asko sal-tzen ziran. Plakak be bai, bai fa-melixetan eta baitta industrie-tarako be".

Prisa haundiko eskaerak be asko egin detsez eta "atzorako ez zeutsuen gauzak eskatzen?" galdetuta, baietz diñue eta, ha-



Leire Kareagak hainbat urte emon zittuan dendan eta, Amaia bere ahiztiarentzat, bera da azken belaualdiko artistiena.

lakuetan, aurre egittia besterik ez zan geratzen: ordu ekstrak sar-tu, azken fiñian. Jendiak, dana dala, esker onez erantzun izan detse beti: "Arazo gehixen er-lo-ju konponketekin izan dogu". Sustorik? Behin, butroia egitten ahalegindu ziranian: "Eguedi-xan izan zan, gaiñera, 14.30xak inguruan. Baiña ez zeben sartzia lortu. Udaltzaiña atzetik zekala-eta, erremintten poltsia bota egin zeban ihesaldixan".

Dendia ixteko erabagixa, go-gorra izan arren, beste modu batian enfokatzen da batek be-re onena emon dabeanian.

# K kareaga



eta  
kitto!

Euskara Elkarteak

Urkizu pasealekua 11, solairuartea  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 20 09 18  
elkartea@etakitto.com  
www.etakitto.com

A P I R I L A

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

M A I A T Z A

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

E K A I N A

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Egin zaitez  
...eta kitto!ko  
bazkide!



2 0 1 3 k o  
u d a b e r r i k o  
k u l t u r  
e s k a i n t z a

...eta kitto! Euskara Elkarteak



## Gazte Oporraldietarako izen-ematea

Gaur bertan zabaldu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuetarako izena aurrez emateko epea 14 eta 17 urte bitartekoentzat. Urteroko moduan, hainbat tokitako aterpetxeetan udan egonaldia eskaintzen zaizkie gazteei eta bakoitzean jardura osagarriak egingo dituzte, gazteek oporretako egun batzuk primeran emateko. Interesa dutenek datorren astera arte, hilaren 19ra arte izango dute izena emateko aukera. Horretarako edo informazio gehiagorako [www.gipuzkoa.net/oporraldi](http://www.gipuzkoa.net/oporraldi) helbidera jo daiteke edo 943445980 telefonora deitu. Portaleko 1. solairuan dagoen Gazte Informazio Bulegora ere joan daiteke (943708435 telefonoa).



## Soinujole gazteak Saloura bidaian

Azken urteotako martxari jarraituta, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitixa eta akordeoi ikasleak bost egun Saloun eman dituzte, Aste Santuko oporrak aprobetxatuta. Marisol Arrillaga irakaslearekin batera joan ziren bidaian eta hango musika eskolan eskainitako emanaldian Eibarren ikasitakoa erakutsi zuten.



## Eibarko Koro Gaztea Bartzelonan

Aurreko astean eskolan oporretan zeudela aprobetxatuta, Eibarko Koro Gazteak Bartzelonara bidaia egin zuen Elena Martin zuzendariak eta hainbat gurasok lagunduta. Hango Sant Medir abesbatzarekin batera kontzertua eskaini zuten eibartarrek, abesbatzari izena ematen dion elizan. Horrekin batera, jakina, turismoa egiteko aukera ere izan zuten.

### APIRILA

**Apirila 27, zapatua**  
Berbetan egitasmoa mintzalagunentzat irteera. Getarian Balenciaga Museora bisita eta Getarian bazkaldu.

### MAIATZA

**Maiatzak 7, martitzena**  
Euskararen transmisioari buruzko III. Mintegia. Goiz eta arratsalde, Portalea kultur etxean.



**Maiatzak 11, zapatua**  
Gurasoak Berbetan-eko mintzalagunentzat egun pasa, Elgetan.  
**Maiatzak 12, domeka**  
Herri Urratsera (Senpere) joateko autobusak.  
**Maiatzak 15, eguaztena**  
Ipurterre ipuin lehiaketako sari-banaketa ekitaldia. 10.00etan Unibertsitate Laboralean. Madiber magoaren ikuskizuna ere egongo da.



**Maiatzak 26, domeka**  
Ibilaldia-ra (Portugalete) joateko autobusak.



### EKAINA

**Ekainak 1, zapatua**  
Mintza Eguna Elgoibarren.  
**Ekainak 16, domeka**  
Araba Euskaraz-era (Amurrio) joateko autobusak.



**Ekainak 23, domeka**  
San Juan sua, 23.30etan. Ipurua Dantza Garaikidea taldearen ikuskizunarekin. Untzagan.  
**Ekainak 25, martitzena**  
Euskal Jaialdia. Herri kirol erakustaldia. 18.30etan Untzagan.

...eta horrez gain:  
Barixakuero ...eta kitto! astekaria.  
Hilero Txikitto! umeen aldizkaria.  
Astero Berbetan mintzapraktika taldeak; baita guraso eta dendarienezat ere.  
Itzulpenak eta diseinu lanak.  
[www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)





**Ignacio  
Zuloaga  
Institutua**

## KRISIA DELA ETA...

**Ignacio Zuloaga institutuan  
Teknologia arloan jardundako  
hiru ikasleekin hitz egin dugu...**

- 1- Zer ikasi zenuen? Zergatik aukeratu zenituen ikasketa horiek?**
- 2- Zeintzuk dira, zure ustez, Batxilergoan aukeratu behar diren ikasgaiak, zuk egindako ikasketei modu egokian aurre egiteko?**
- 3- Unibertsitatea gogorra iruditu zaizu? Ondo aukeratu duzula uste duzu?**
- 4- Lanean zaude? Horrela bada, egiten duzun lana bat dator duzun prestakuntzarekin?**
- 5- Gaur egun garrantzia eman nahi diete goi mailako zikloei, lana bilatzea errazagoa omen delako. Ados horrekin?**
- 6- Zein aholku emango zenioke Teknologia arloa gustatzen zaion ikasle bati? Nola ikusten duzu zure etorkizuna?**



*Jone Azpillaga*

24 urte

- 1-** Batxilergo zientifikoa egitea erabaki nuen. Sasoi hartan nahia- go izan nuen, irakasgai oso teorikoak hartu beharrean, zerbait praktikoagoa egitea. Matematika, Fisika... era horretako ikas- gaiak errazagoak egiten zitzaizkidan.
- 2-** Telekomunikazio Ingenieritza ikasi dut. Matematika eta Fisika ikasgaiak dira garrantzitsuenak honetarako. Horretaz gain, Me- kanikaren oinarriko kontzeptu batzuk izatea komenigarria da. Kimika eta Marrazketa ez dira beharrezkoak Telekomunikazioa egiteko, baina beste hainbat ingenieritzarako bai.
- 3-** Unibertsitatea gogorra da, aldaketa eragiten baitu zure bizi- tzean. Norberak jarri behar du ikasteko erritmoa, inork ez baitu zure orde ikasiko, eta laguntza eskatzen ere ikasi behar da. Kar- rera ondo aukeratu ote dudanez? Ez nuke aldatuko.
- 4-** Urtarrilean hasi nintzen lanean eta software garapena lantzen dut Zenbakizko Kontrollean. Telekomunikazio ingenieritzak gai asko lantzen ditu eta programazioa karreran landu genuen.
- 5-** Betidanik sustatu izan dira Goi Mailako zikloak, lana erraz bila- tzen dela-eta. Baina, Batxilergoa amaitzean hain gazte izanik, unibertsitate- ra joatea erabaki nuen; geroago ere izango da den- bora lanerako. Unibertsitatean zauden bitartean ere, badago bestelako lan batzuk egin eta diru estra pixka bat lortzerik.
- 6-** Animatu egingo nuke: Batxilergoan eta geroago unibertsitate- an ikasitakoarekin norberaren etorkizuna eraikitzen baita. Lana aurkitzeko ahalik eta prestatuen egoten saiatu behar da. Tek- nologia sortzen den bitartean, horretarako lana ere egongo da.



*Maialen Zubizarreta*

22 urte

- 1-** Aurreko urtean Industri Diseinu Ingenieritzako ikasketak ama- itu nituen. Betidanik izan ditut gustoko Matematikak eta Zien- tzia Zehatzak eta, hobby gisa, diseinua oso gustoko dut.
- 2-** Batxilergo egokiena teknologikoa da. Funtsezko ikasgaiak Fisi- ka, Matematika eta Marrazketa Teknikoak dira. Horien osaga- rri, hautazko moduan, AutoCad software-aren nozio basikoak irakasten ziguten ikasgaia ere hautatu nuen: unibertsitatean, eta lanean ere, asko erabiltzen den software-a da.
- 3-** Lehenengo maila oso gogorra egin zitzaidan, Ingenieritzako es- pezialitate guztiek ikasgai gehienak berdinak genituelako. Hu- rrengo urteetan, berriz, ikasgaiak espezialitate bakoitzera gehia- go hurbiltzen dira eta gustorago hartzen dituzu ikasgaiak. Au- kera ona izan dela uste dut; gainera, gaur egun diseinuak gar- rantzi handia hartu du.
- 4-** Aurreko urtean gradu amaierako proiektua egin nuen enpresan nago lanean. Bertan egiten dudana nire ikasketekin bat da- tor. Nahiz eta unibertsitatean ikasitakoa zehaz-mehatz ez apli- katu, hain ikasitakoak nire lana egoki egiten laguntzen dit.
- 5-** Krisia dela eta, lanpostu bat aurkitzea zaila da; beraz, jendea ge- ro eta formatuago egon behar da. Horregatik, sasoi hauek gehiago formatzeko aprobetxatu behar ditugu. Hala ere, Goi Mailako zikloek ikasteko aukera onak eskaintzen dituztela uste dut, baina horiek hautatzeko arrazoia lana errazago aurkitzeko aukera ematen dutela izatearekin ez dator bat.
- 6-** Teknologia arloko ikasketetan ordu asko sartu behar direla ika- si dut, ikasteko metodoa behin eta berriro ariketa mordo- a egi- tean datza-eta. Hala ere, ordu horiek teoria ikastea baino en- tretenigarriagoak direla uste dut; gainera, norbera gaintitzea- ren sententzia oso pozgarria da. Gaur egun norberaren etorki- zuna argi ikustea zaila da; hori dela-eta, aukera bat baino gehia- go izan behar duzu buruan. Nik enpresa berean lanean jarrai- tuko nuke; baina, horrela ez bada, ikasten jarraitzea ez dut baz- tertzen. Diseinu arloa oso zabala da; beraz, gehiago espeziali- tatzeko, masterren bat egitea ez dut baztertzen.



*Ainara Vesga*

25 urte

- 1-** Arkitektura ikasi dut. Lanbide kreatiboa delako aukeratu nuen, bai ikasketetan zein lan munduan proiektu bakoitza berezia baita.
- 2-** Fisika, Matematika eta Marrazketa Teknikoa beharrezkoak dira; Ordenagailu bidezko marrazketa (Autocad eta Photoshop) eta Marrazketa artistikoa ere oso lagungarriak dira.
- 3-** Arkitektura ikasketak denbora eta lan asko eskatzen dute, bai- na nik lan hori gustora egin dudanez, oso esperientzia ona izan da. Nahiz eta lanbidearen egoera gaur egun oso kaskarra izan, oso pozik nago nire aukerarekin.
- 4-** Ikasketak amaitu baino lehen lortu nuen nire gaur egungo lan- postua. Estudio batean delinatzaile lanetan dihardut eta gau- za asko ikasi ditut han.
- 5-** Niretzat, bakoitzak nahi duena ikasi behar du; alde batera la- gata unibertsitateko ikasketa bat edo heziketa ziklo bat den.
- 6-** Nahi duena ikasteko eta gogor lan egiteko esango nioke. Hemen edo atzerrian, nire lanbideaz gozatzen ikusten dut nire burua.

# + OSASUN GAZTA

## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra  
- terapia neurala  
- osteopatia

**miren albistegi sojo**  
HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK  
Errebal, 14  
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**  
HORTZ KLINIKA

**ARAT** Hortz Klinika  
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

FORIBIO ETXEBARRIA, 4 - Esk. Tel: 943 20 18 51

R.P.S. 148/12

**m bista eder**  
clínica dental - hortz klinika

Irribarreak gaztetu egiten gaitu

Inplante eta Hortz-Estetikan adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Inplanteak / Laser Teknologia / PADI

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

RPS 04/02

**IRAZABAL**  
clínica dental

Irribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**hartz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

**Mª Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
hortz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskua  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**


Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapia



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia.  
OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

## Okulistak



**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera  
943 20 19 82

Oftalmologoak  
Centro de Oftalmología Avanzada



**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikia

- Miopia ebakuntzak femtosekundoko laserrarekin.
- Katarata ebakuntzak lente multifokalarekin.
- Presbiziaren kirurgia.

Plaza Barria 2. 2º.  
Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



## Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOAK**  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**



BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGOAK**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOAK**

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak



**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOAK  
ETA OSASUN ZENTROAK

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia  
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina  
PSIKOLOGOAK  
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA**  
**RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

**TRAUMATOLOGOAK:** Azkarate eta González Bosch doktoreak  
**TRATAMENDUAK** hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu:  
deitu 943-206776 telefono zenbakira



## Airan Fernandezek irabazi zuen Valenciaga Memorialean

Faboritoen artean zegoen eta Coluer taldeko txirrindulariak ondo erantzun zion uste horri, Antonio Pedreo bigarrenari Isasiko gainean 9 segundoko tarte aterata. 22 segundora helmugaratu zen Jose Gutierrez eta 39ra bederatz laguneko taldetxo. Borja Abasolo izan zen Debabarrenako ordezkari onena, baina San Miguel gaina pasa ondoren izandako makalaldiak 35. postuan sartzer aherman zuten. Mikel Hernandez taldekideak maila onean jardun zuten eta tarteko helmugetako

sailkapenean bigarren postuan geratu zen. Horko sailkapena eta mendikoa, biak bereganatu zituen Vadim Zhuravlev-ek. Irteerako tropelaren erdiak (196tik 98k) laga zuen lasterketa bertan behera: horko batzbestekoa 39 kilometro ordukoa izan zen.

Aipatutako bi txirrindulariez gain, Etxabe anaiek ere lan ona egin zuten Debabarrenakoen artean. Bihar Zornotzan izango dira eta etzirako zalan-tza dute, Tour de Lot-et-Garonnen edo Berriatuan parte hartzeko.



Zapatuko mendizaleak ibilbidea amaitu edo ez eztabaidatzen.  
PERIKO IRIONDO

## Hiru-txirlo: Ugarteburu lider Gipuzkoako txapelketan

Txapelketa horretako 44. edizioko lehenengo bi jardunaldiak jokatu eta gero, Asola-Berriko Bittor Ugarteburuk aldea (lau txirlo) ateratzen dio San Migueleko Jose Irusta sailkapeneko bigarrenari. San Roken eta Floreagan bikain bota du eibartarrak eta, beste bederatz tiraldi falta badira ere, abantaila polita hartu du. Hurrengo tiraldia bihar jokatu da Elgoibarko San Miguelen, 17.00etan hasita.



Lehen ere sariak irabazitakoa da Asola-Berriko bolaria.

## Deltecoko lau ordezkari Gernikako duatloian



Roberto Gartzia.

Delteco Eibar Triatloiko ordezkariak maila onean jardun zuten zapatuan jokatu Gernikako Opatusen Duatloian eta laurak postu bikainak eskuratu zituzten euren mailatan: horrela, Juanjo Romero bigarrena izan zen betteranoen 2 mailan, Txomin Osoro hirugarrena juniorretan, Roberto Gartzia bosgarrena betteranoen 1 mailan eta Pello Osoro 6. postuan sailkatu zen 23 urte-tik azpikoetan.

## Elurra mendi zeharkaldian

36 lagun animatu ziren aurreko zapatuan Eibarko Klub Deportivo mendi taldeak antolatutako Arlabanetik Arantzazura egin beharreko zeharkaldia egitera. Elurrak, baina, asko gogortu zuen mendizaleen helburura heltzeko bidea eta, batzara egin ondoren, Eskoriatzara jotzea erabaki zuten. Asteburu honetarako arroi jaitziera antolatu dute eta hilaren azken asteburuan Munhoara egingo dute irteera.



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANS GROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA



**Egiguretarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

## Eibarrek UD Logroñés hartuko du domekan



Gol gutxi, baina erabakigarriak sartu dituzte azken aldian.

Arratsaldeko 18.00etan hasiko da partidu hori eta eibartarrek beharrezkoa dute irabaztea gaur egun duten 3. postuari eutsi eta, ahal bada, hobetzen saiatzeko. Azken partiduetan ondo gorde dute atea Gaizka Garitanoren mutilek eta, horrela, aurrerapausu nabarmena eman dute igoyerako kanporaketan parte hartzeko bidean. Une honetan Alavesengandik bost puntora eta Bilbao Athletic-engatik bira dira eibartarra.



neko behe aldetik ihes egiteko ahaleginean dabilen Amedorekin 7-2 galduz. Bihar, 19.30-etan, Olaizagan hartuko dute euren atzetik zortzi puntura dagoen Zierbana eta, irabaztekotan, liga txapelketa eurenganatuko dute Debabarrenakoek.

## Concepto Egilek lehenengoz galdu du

Hogeita bi jardunaldi behar izan dira Debabarreneko talde nagusiak denboraldiko lehenengo partidua galtzeko. Foballaren bueltan diharduten goi mailako taldeen artean, Elgoibarkoa zen galdu barik zegoen bakarra eta ezustea eman zuen (edo jaso) sailkape-

## Hierros Anetxek amaitu du Liga

Hospitaleti 16-3 irabazita amaitu du denboraldia Eibarko taldeak. Lortutako 5. postuarekin, estatuko 20 talde onenen artean kokatu dira, etxeko jokalariekin gainera: kanpoko baka-rrak, Diego Suarez "Patas"-ek agur esan zion taldeari aurreko zapatuan Unben. Orain partidu bakarrera jokatuko dute hila- ren 20an Cadizeko Atlético Portuenserren aurka.

## Gipuzkoako erritmikoaren txapelketa bihar

Azkoitiko Zubi-Aurre kiroldegian jokatuko da probintziako gimnasia erritmikako txapelketa hori, klubetako zein banakako mailatan. Ipurua Klubak federatutako lau ordezkari eta oinarri mailako beste lau aurkeztuko ditu. Seniorretan Lorena Holgado, Miriam Blanco, Irati Yarza eta Jennifer Hernandezek hartuko du-

te parte; juniorretan, Noelia Bediak lehiatuko du; eta infantiletan, Malen Txurruka, Teresa Miguel, Elene Varela eta Nahia Arguizek. Hurrengo zapatuan Ipuruak hartuko du Gipuzkoako amateur eta eskola A mailako txapelketaren bigarren fasea, herriko sei ordezkari-ekin.

## berriak

### WATERPOLOA

Kadete mailako Urbat-Urko- tronik-ek Oiasso Bidasoari 11-14 irabazi eta gero, nazio- nal mailako ligako 2. faserako txartela lortu du. Waterpolo Navarra eta Waterpolo Donos- tirekin batera, Bizkaia eta Kantabriako hiru onenekin jo- katuko dute, horko bik Espai- niako txapelketan parte har- tzeko. Domekan, 16.00etan, Azkartza hartuko dute Orbea kiroldegian.

### FOBALL-ZALETUA

Kirol-jokoa liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, baka- rrik Txokok (57 puntu) eta Garajes Garcia.com-ek (56) dute lehia irabazteko aukera. Azken jardunaldian Sporting eta Areto gairitu zituzten, hurrenez hurren, eta ezpatak goi-goian jarraitzen dute. As- teburu honetan liderrak Ca- serioren aurka jokatuko du domekan, 10.30etan, eta bi- garrenak Tankemans izango du aurkari jarraian, eguerdi- ko 12.00etan.



## JONE ALZAA FERNANDEZ

1. urteurrena (2012-IV-14)



URTEBETE DA JOAN ZINELA  
URTEBETE GURE ARTEAN EZ ZAUDELA  
URTEBETE EGUNERO OROITZEN ZAITUGULA

Jon Ander eta Iñigo Larreategi





## PILAR GUTIERREZ-ALONSO "Dorothy" "Musikala umeentzat zein helduentzat erakargarria da"

Bihar zapatua "El Mago de Oz" istorioan oinarritutako ikuskizun musikala hartuko du Coliseoak 17.00etatik aurrera. Orain dela lau urte taularatutako lanaren milatik gora funtzio eskaini dituzte Mundiartista taldekoek eta denetan arrakasta handia lortu dute. Bihar ere esperantza horrekin irtengo dira eszenatokira Pilar Gutiérrez-Alonso eta beste antzezleak. Sarrerak 16 eurotan eros daitezke txarteldegian zein Kutxabanken kutxazain eta webgunean.

**- Ikuskizuna aurkezteko orduan "betiko istorioa inoiz ez beza-la kontatua" dela diozue. Jatorrizko ipuina moldatu duzue?**

Ardatza L. Frank Baum-ek idatzitako ipuinak osatzen du, baina kontakizuna gaur egungo sasoiara moldatzeko hainbat aldaketa egin dizkiote eta aldaketa batzuk, gainera, bereziki helduengan pentsatuta daude. Horregatik, umei ez ezik helduei ere oso erakargarria egiten zaie ikuskizuna, familia osoarentzat da egokia.

**- Nolatan sortu zen ipuin horren inguruko musikala?**

Ipuineko pertsonaiak benetan maitagarriak dira eta mezua ez da zaharkituta geratu, beraz jende askori oraindik ere asko gustatzen zaio. Eta, nola ez, ikuskizuna musikala izatea pentsatzeko orduan ekoizlea musikaria izateak bere garrantzia izango zuen.

**- Interpretazioari kantak eta dantzak gehitzea erronka berezia izan da zuretzat?**

Aurretik hainbat antzezlanetan abesten jardunda nengoan, baina horrek zerikusi gutxi dauka musikal batekin. Hala ere, dantzan zein kantuan formazioa banuen lehenagotik eta biak asko gustatzen zaizkidanez, ba horrelako ikuskizunean jardutea zoragarria da niretzat. Orain dela gutxira arte gurean, beste herri batzuetan ez bezala, ez da egon musikalen inguruko tradizioirik eta, horregatik, zailagoa da arlo guztiak landu dituzten aktoreak aurkitzea.

**- Ikuskizunak laugarren denboraldia bete du eta tarte horretan milatik gora saio eskaini dituzue. Nolako da harrera?**

Zoragarria benetan, umeak liluratuta irtetzen dira. Eta ikusleentako batzuk birritan eta hirutan etorri zaizkigu, asko gustatu zaien seinale.

## Artisten Elkartekoaren erakusketa zabalik

Aurreko barixakuan inauguratu zuten Portalean Eibarko Artisten Elkartekoaren erakusketa. Hilaren 28ra bitartean elkarteko 40 bat bazkideren orotariko artelanak ikusteko aukera izango da, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.



40 bat bazkideren orotariko lanak ikusteko aukera dago. LEIRE ITURBE

## Egungo Islak gaurtik aurrera

Ignazio Zuloaga institutuko ikasleen Egungo Islak erakusketa gaur 19.00etan inauguratuko da Portaleko erakusketa aretoan. Bertan institutuko hainbat ikasleren orotariko artelanak ikusteko aukera egongo da, urteroko moduan. Gaur hasi eta hilaren 28ra bitartean zabalduko dute erakusketa, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.



## Danborradetarako entseguak

San Juan jaietan egingo den umeen danborradan parte hartu nahi dutenek aste honetan bertan, eguaztenean hasi dituzte entseguak Bittor Sarasketa kalean udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean). Aurrerantzean astero entsaiatuko dute eguazteno, 19.00etan hasita. Nagusiendako entseguak, berriz, datorren astean, apirilaren 17an hasiko dira, toki berean, baina 20.00etan.



## "¡Ay Carmela!" Coliseoko taula gainera

Gerra Zibilaren garaian girotutako ¡Ay Carmela! antzezlanaren hartuko du Coliseoak apirilaren 19an, 20.30etan (sarrerak 8 eurotan salgai). Palco Tres konpainiaren lana Roman Callejak zuzendutakoa da eta antzezleak Laura Orduña, Patricia Cercas, Israel Ruiz eta Adolfo Obregon dira.

Jose Sanchis Sinisterraren eskutik ailegatu zaigun antzezlanean Carmela eta Paulino 1936ko gerran errepublikarren aldean dabiltza, herririk herri, aktore lanetan. Nahi gabe, frankistek menpean hartutako lurretan sartu eta atxilotu egiten dituzte. Gauzak horrela, Errepublikaren aurkako parodia egiteko eskatzen diete han, eta, agindutakoa ez



betetzeagatik, Carmela hiltzen dute. Hortik aurrera, protagonisten oroitzapenen inguruan eraikitzen doa lana.

## Ruper Ordorikaren kontzertua Coliseoan

Apirilaren 26an, 20.30etan Ruper Ordorika abeslariak kontzertua emango du Coliseo antzokian (sarrerak 10 eurotan salgai). New Yorken grabatutako lan berria, "Hodeien azpian" aurkezteko kontzertua izango da. Abeslari oñatiarrak azken bi urteotan sortu dituen kantuak biltzen ditu Elkarrek 2011n argitara emandako lanak; izan ere, 2009an "Haizea garizumakoa" (Elkar) kaleratu eta gero hasi zen abesti berriak konposatzeko beharrean.



Kantuak bakarrik landu eta gero, New Yorkeko Brooklyn auzoko estudio batera jo zuen kantautore gipuzkoarrak, hamasei pistatako zintan eta formatu analogikoan grabatzeko. Kenny Wollesen eta Skuli Sverrisson ohiko kolaboratzaileekin batera, Ben Monderrek hiru abestitan jo du gitarra eta Stephen Ulrich musikariak gainerako zortzietan. Kolaborazio berri honek abestiei sonoritate berria ekarri diela adierazi du Ordorikak.

## laburrak

### CIELITOREN KONTZERTUA

Cielito Musika Bandak domekan kontzertua emango du Coliseoan 12.30etatik aurrera. Carlos Sánchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian honako egitarauari jarraituko diote: "Yrusta" (pasodoblea, J. Larraquert), "Suite eibarresa" (suitea, J.B. Gisasola), "Les Miserables (aukeraketa, C.M. Schönberg), "Nabucco" (3. aktoko korua, G. Verdi) eta "Abba Gold" (potpourria, Ulvaeus&Andersson).



### UDALTOP

Apirilaren 19ra arte eman daiteke izena UdalTOP udaletako euskara-zerbitzuen topaketan parte hartzeko. Aurreko edizioetan bezala, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean izango da topaketa, apirilaren 25 eta 26an. Aurten jorratuko duten gaia "Nola aktibatu herritarrak udalarekin euskaraz jarduteko?" izango da eta matrikulak 80 euro balio du (egun biak, bazkariak barne). Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko [www.udalTOP.com](http://www.udalTOP.com) helbidera jo.

# kareaga

**K** Denda ixten  
dugulako

## LIKIDAZIOA

%50 %30 %20  
%15 urtean

- Bidebarrieta, 10 -  
Tif. 943 20 80 45





## Trikitixa Eguneko herri-bazkaria

Debagoieneko IX. Trikitixa Eguna hurrengo asteburuan, apirilaren 20an izango da Elgetan eta bertan egingo den herri bazkarira joan nahi dutenek datorren martitzenera arte (hilarren 16ra arte) izango dute izena emateko aukera. Umeen menuak (makarroiak tomatearekin, oilasko errea chips-ekin, izozkia, ogia eta ura / freskagariak) 13 euro balio du eta helduen menuak (patatak errioxar erara, oilasko errea chips-ekin, goxua edo tarta izozkiarekin, ogia, edariak eta kafea), berriz, 18 euro. Joan nahi duenak Euskadiko Kutzako 3035 0023 91 0231147703 kontuan dagokion dirua sartu beharko du (zenbat ume eta zenbat heldu, bakoitza bere aldetik argi adierazita eta zein herritik doazen zehaztuta). Argibide gehiago nahi duenak 943206266 edo 676729551 telefonora deitu dezake.

## Bizikleta eta argazkiak bat eginik

Eibarko Txirindulari Elkarteak argazki erakusketa ipini du ikusgai Untzagako jubilatutako etxean, iazko "Balentziaga Memoriala-Ixuako Mendatea" argazki lehiaketako lanekin. Aurtengo edizioa domekan jokatu zen eta horren harira Txirindularien Elkarteak oraingoan ere lehiaketa antolatu dute. Parte hartu nahi duenak txirindularitzako probari lotutako 3 argazki aurkeztu ditzake gehien jota, euskarri digitalean, maiatzaren 3rako. Lanak zuzenean, elkarrearen egoitzan (Pagaegi, 3) entregatu daitezke. Informazio gehiagorako cce@clubciclistaeibarres.org helbidera idatzi daitezke.



## ○ Euskaraz ikertzea, negozio txarra

Euskarazko ikerketa proiektuak urriak dira eta ikerketa-talde euskaldun gutxi daude. Ez da errenta euskaraz ikertzea: laguntza gutxi, curriculum-erako balio eskasa, sortze lan handia eskatzen du terminologia mailan, baliabideak urriak dira eta beste hizkuntzetara itzuli beharra du, aintzat hartzea nahi bada. 2001/2002 ikasturtean EHU'n defendatu doktorego-tesien %8,3 euskarazkoa izan zen, %3,1 ingelesezkoa eta, gainerakoa, gaztelaniazkoa. Hamar urte geroago, euskarazko portzentajea ia berbera zen eta ingelesarena, aldiz, sei halako: %18,3.

## euskararen txokoa

## ○ Web orriak euskaraz sortzeko liburua

Horrelako orriak euskaraz sortzeko gakoak eta aholkuak ematen dituen liburua elektronikoa argitaratu du Eusko Jaurlaritzak eta, dagoeneko, doan eskura daiteke sarean. HAEE Herri Arduralaritzaren Euskal erakundearen web orrian. Maite Inuretagoiena bertako zuzendariaren arabera, liburua "abiapuntu bat" da itzultako orriak gainditu eta euskarazko "benetako" komunikazio digitala sortzen hasteko. Lau atal ditu lanak: nabigazioa (bisitaria webgunean galdu ez dadin), diseinua (irakurtzeko atsegina izan dadin), idazketa-prozesua eta estiloa (testu egokiena).

## Bertso-kantu bazkaria Legarren

Legarreko Jai Batzordeak antolatuta, apirilaren 27an bertso-kantu bazkaria egingo da Legarre Gain Elkartean 14.30etan. Antolatzaileek diotenez, "20 euro ordainduta patatak txorizoarekin, oilasko saltsan, tarta, kafea eta kopa hartzeko eta kantuek lagundutako bertso saio zoragarriarekin gozatzeko aukera izango da". Bertsolariak

Mikel Arrillaga, Beñat Ugartetxea eta Julen Zelaieta izango dira eta gai-jartzaileak, berriz, Asier Ibaibarriaga eta Arrate Gisasola; azken honek, gainera gitarrarekin eta kantuan emango dizkie gaiak bertsolariari. Bazkarirako



txartelak erosteko epea apirilaren 21ean amaituko da (Legarreko Bolintxo okindegian eta La Parra tabernan daude salgai).

## Hezkuntza erreformari buruzko hitzaldia

Apirilaren 17an (eguztenean) Hezkuntzaren erreformarako legeari buruzko hitzaldia emango dute Arrate Kultur Elkartean, 19.00etan hasita. Eli Zubiaga "Euskal Herriak bere hezkuntza eraiki" elkarteko kideak "Wert legeari" buruzko informazioa emango du hitzaldian. Legeak jasotako legezko informazioa ezagutzera emateko asmoz antolatutako hitzaldian, besteak beste honako gaiak jorratuko ditu gonbidatuak: legea eta haren testuingurua, LOMCE legearen gaineko irakurketa eta gaur egun daukagun hezkuntza ereduarekin konparaketa eta aurrera begirako balizko alternatibak.



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Aupa, EIDER, txapeldun, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat guztien partez, potxola.



Zorionak, MARKEL, atzo lau urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LOREA, zure zazpigarren urtebetetzian. Primeran ospatuko dogu bixar. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, MAITE, bixar hamar urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, GARI, gaur bi urte egiten dozuz-eta. Muxu haundi bat Ganix eta Garat-en partez.



Muxu haundi bat eta ongi-etorri, EKHI, hillaren 7xan jaixo ziñan-eta. Zorionak gurasueri, famelixa guztien partez.



Zorionak, IGOR, hillaren 3an lau urte bete zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, AITOR Gonzalez Valenzuela, domekan lau urte beteko dozuzelako. Aitxita-amama eta famelixaren partez.



Zorionak, ANDONE Agote Gorostizaga, domekan sei urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NAIA Mondragon Urizar, domekan bi urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ASIER, atzo 11 urte egin zenduaz-en-eta. Famelixakuen eta lagunen partez.



Zorionak, MARKEL, martitzenian 11 urte egingo dozuzelako. Famelixakuen eta lagunen partez.



Zorionak, UDANE, aurreko domekan hiru urte bete zenduaz-en-eta. Famelixa guztien partez.



Zorionak, GAROA, gure sirenaxuak hamar urte bete dittu-eta! Laztan potolo bat danon partez.



Zorionak, NADIA, eguaztenian bost urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixa eta lagun guztien partez.



Zorionak, bihurritxuak! MARKELeK hillaren 9xan bost urte bete zittualako eta LUKENEK 19xan urtebetetxua egingo dabelako. Segi beti bezañi alai! Muxu haundi bat famelixaren partez.

## zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

12an: 22.30

13an: 19.45, 22.30

14an: 20.00

15ean: 20.30

"El chico del periódico"

Zuzendaria: Lee Daniels



(2 ARETOAN)

12an: 22.30

13an: 19.45, 22.30

14an: 20.00

15ean: 20.30

"Anna Karenina"

Zuzendaria: Joe Wright



(ANTZOKIAN)

12an: 22.30

13an: 19.45, 22.30

14an: 20.00

15ean: 20.30

"Oblivion"

Zuzendaria: Joseph Kosinski



## BARIXAKUA 12

### INDIANOKUA

**16.30.** Ginkana.  
Indianokua gaztelekuan.

### FILMA

**17.30.** "Garfield". El Corte Inglés-ean.

### MAHAI-INGURUA

**18.30.** "Euskal Herriko indar okupatzaile errepresiboak" mahai-ingurua, Oñatiko Fan Hemendik eta Altsasuko Herri Mugimenduko kideekin. Eibarko Bizikleta Plazan (Galeriaseko parkean).

### INAUGURAZIOA

**19.00.** "Ignazio Zuloagaren Egungo Islak" erakusketaren inaugurazioa. Portalean.

## ZAPATUA 13

### MERKATARITZA ZUZENA

**10.30.** Merkataritza Zuzena denda, Aldatzen-en eskutik.

### JAIALDIA

**11.00.** Zona 10koen jaia: umeendako jokoak, musika, grafitiak... Errebalgo aparkalekuan.

### PINTXO-POTEOA

**12.00/15.00 eta 19.00/22.00.** Deparkel Debabarrena Parkinson Elkartearen aldeko pintxo-potea. Untzagan.

### INDIANOKUA

**17.00.** Mus ikastaroa. Indianokua gaztelekuan.

### MUSIKALA

**17.00.** "El mago de Oz". Sarrera: 16 euro. Coliseoan.

### ZEZENZALEEN BATZARRA

**19.00.** Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkarteoko hildako bazkideen aldeko meza. San Andres elizan.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Kaleetan Kantuz-ekoen irteera. Untzagan hasita.

## DOMEKA 14

### ZEZENZALEEN BATZARRA

**11.00.** Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkartearen batzarra (San Andres elizako lokaletan). Piskolabisa (Leo tabernan). Bazkaria (Unzaga Plaza hotolean)

### II. ERREPUBLIKA

**11.30.** Errepublikaren bandera Untzagako Casa del Pueblo-ko balkoian igotzea eta txapliguak (Txaltxa Zelaian), Eibarko Sozialisten eskutik.

### KONTZERTUA

**12.30.** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

### INDIANOKUA

**17.00.** Play/wii. Indianokua gaztelekuan.

## MARTITZENA 16

### IKASTEN

**10.00.** "Escuelas filosóficas griegas" hitzaldia, Marisa Iglesiasen eskutik. Armeria Eskolan.

### INDIANOKUA

**18.00.** Play/wii. Indianokua gaztelekuan.

### PROIEKZIOA

**19.00.** "Con tu dinero", Egoaizia eta Fiare banku etikoaren eskutik. Portalean.

### IRAKURKETA KLUBA

**19.00.** Gaztelerazko irakurketa kluba: "Desgracia", J.M. Coetzee-ren eskutik. Juan San Martin liburutegian.

## EGUAZTENA 17

### INDIANOKUA

**18.00.** Sukaldaritza. Indianokua gaztelekuan.

## hildakoak

- Evangelina Conde Meire. 93 urte. 2013-IV-3.
- Antonia Olabe Mateo. 78 urte. 2013-IV-4.
- Elisa Arabiatorre Larrañaga. 91 urte. 2013-IV-4.
- Julia Mugerza Kareaga. 85 urte. 2013-IV-6.
- Conchi Erkizia Iriondo. 88 urte. 2013-IV-7.
- Rosario Hualde Gonzalez. 92 urte. 2013-IV-7.
- Ignacio Mendez Nuñez. 83 urte. 2013-IV-7.
- Natividad Lentijo Betegon. 83 urte. 2013-IV-9.
- Josefa Irusta San Martin. 76 urte. 2013-IV-10.

### HITZALDIA

**19.00.** "Precáncer. Cancer de piel: prevención, diagnóstico y tratamiento" hitzaldia, Jose Zubizarreta Eibarko Medikuntza Zentruko dermatologoaren eskutik. Portalean.

### DANBORRADA ENTSEGUA

**19.00.** Umeen danborradarako entsegua.  
**20.00.** Nagusien danborradarako entsegua. Bittor Sarasketa, 7an (Beistegi eraikinean).

## EGUENA 18

### IKASTEN

**10.00.** "Los astros como fuente de leyendas, creencias y supersticiones" hitzaldia, Esteban Estebanen eskutik. Armeria Eskolan.  
**18.00.** Joskintza tailerra. Portalean.

### ODOLA ATERATZEA

**18.30.** Odol-emaileentzat odola ateratzeko saioa. Anbulategian.

## jaiotakoak

- Ricardo Domingo Silva Belar. 2013-III-29.
- Julen Gonzalez cabelle. 2013-IV-2.
- Nerea Solana Dominguez. 2013-IV-4.
- Ekhi Zabala Garcia. 2013-IV-7.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Aste Santua motza egin zaizu, ez baituzu ahal bezain beste aprobetxatu. Orain udako oporren zain egon beharko duzu.

### TAURUS

Ez dituzu egun zoragarriak pasatuko aste honetan, baina txarragoa izan zitekeen. Une honetan alde ona ikusten saiatu!

### GEMINI

Pozik, ezta? Ez da gutxiagorako. Dena zuk nahi bezala irten zaizu, hori zortea! Merezki zenuen, hala ere: bazen sasoi!

### CANCER

Opor osteko sindromea jasango duzu: horrela deitzen diote orain. Lanerako gogo gutxi, eguzkipean egoteko nahia...

### LEO

Poliki-poliki zure bihotzak lekua egin dio orain gutxi ezagutu zenuen pertsona horri. Udaberriaren efektua? Maitasuna!

### VIRGO

Gezurtero galanta zara. Zer izango da hurrengoa? Chávez ikusi duzula esatea? Astakeria handiagorik asmatu duzu!

### LIBRA

Lan kontuetan ez dituzu berri onak jasoko, baina hortik kanpo aste bikaina pasatuko duzu, batez ere familiarekin.

### SCORPIUS

Pilak ondo kargatuta etorri zara Aste Santuko oporretatik. Behar-beharrezkoak zenituen egun horiek atsedenerako.

### SAGITTARIUS

Berbek min handia egin dezakete, baita ekinzek ere: ez duzu garbi jokatu pertsona horrekin. Konpondu!!!

### CAPRICORNIUS

Etxeke igogailua erabili beharrean, eskilarak igoko bazenitu? Ariketa fisikoa egiteko modua da, gutxienez. Animatu!

### AQUARIUS

Berba gogorak entzun beharko dituzu, baina asko lagunduko dizute, azken aldiak ez zenbiltzan-eta batere fin.

### PISCIS

Asko maite duzun familiako batek ez du bere une onena bizi eta inguruko beharra dauka. Emaiozu ahal duzuna.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## erakusketak

### ✓ Apirilaren 28ra arte

**EIBARKO ARTISTEN ELKARTEKOEN** erakusketa. *Portalean.*

**IGNAZIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK** erakusketa. *Portalean.*

**2012KO BALENTZIAGA OROITZARREA - IXUAKO MENDATEA.** Argazki lehiaketako lanak. *Untzagako Jubilatut Etxean.*

### ✓ Apirilaren 30era arte

**ARATOSTEAK 2013** erakusketa. *El Ambigú eta Portalea tabernetan.*

**JOSE A. ANDRES FERRIZ.** Argazkiak. *Klub Deportiboan.*

## lehiaketak

### ✓ Maiatzaren 2ra arte

**EIBAR KE-REN 75. URTEURRENERAKO LOGOA ETA ESLOGANA.** 1940-2015@sdeibar.com *helbidean.*

### ✓ Maiatzaren 3ra arte

**IXUAKO PASUA ARGAZKI LEHIAKETA.** *Eibarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3) edo ccc@clubcliclistaieibarres.org helbidean.*

### ✓ Maiatzaren 10era arte

**SANJUANAK 2013 EIBARREN KARTEL LEHIAKETA.** *Pegoran.*  
**ALKOHOL LARREGI EDATEAREN KONTRAKO PEGATINA LEHIAKETA.** *Pegoran.*

### ✓ Ekainera arte

**LI (BURU-HAUSGARRIAK) IRAKURKETA ETA IKERKETA LEHIAKETA.** *Juan San Martin liburutegian.*

## farmaziak

### ✓ barixakua 12

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

### ✓ zapatua 13

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Galbetón, 19)  
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

### ✓ domeka 14

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

### ✓ astelehena 15

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### ✓ martitzena 16

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
 GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### ✓ eguaztena 17

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

### ✓ eguena 18

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
 GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

### ✓ barixakua 19

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
 GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiko eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiko. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiko.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egutegia: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

9			5					
	2				9		3	1
	7	4		6				
2		1		7				6
5				1		3		7
				4		1	9	
1	5		3				7	
					7			8

## SUDOKUA

5	4	9	6	7	3	2	1	8
7	3	8	1	4	2	6	9	5
1	6	2	8	5	9	4	7	3
2	1	4	9	8	5	3	6	7
9	7	6	4	3	1	5	8	2
3	8	5	2	6	7	9	4	1
6	2	1	5	9	8	7	3	4
8	9	7	3	2	4	1	5	6
4	5	3	7	1	6	8	2	9

AURREKOAREN EMATZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Soraluzen. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainua. Dena kanpora begira. Berriztuta. Teilatu berria. Kalefakzio urdina. 66.000 euro. Tel. 617-207672 (deitu 18.30etatik aurrera).
- Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m<sup>2</sup>. Tel. 637-321970 eta 635-728510.
- Pisua salgai Barrera kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Iggogailua. Berriztuta. Eguzkitsua. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 659-605863.
- Pisua salgai Fermin Calbetonen. Garaje-trasteroa aukeran. Aldapa barrik bizitzeko aukera ezinbohea. Tel. 646-680445.

### 1.2. Errentan

- Conilen (Cádiz) 2 logelako apartamentua alokagai. Hondartza inguruan. Tel. 653-733457.
- Valle Ramalesen (Kantabria) txaleta alokagai urte osorako. Tel. 653-733457.
- Logelak alokagai Eibarko erdialdean. Logela argitsu eta handiak, sukalde eta bainugelarekin. Tel. 670-793312.
- Pisua alokagai Elgoibar erdialdean. 2 logela. Berriztua, jantzi eta sartzeko moduan. 400 euro. Tel. 660-056240.
- Pisua errentan hartuko nuke. Tel. 615-458103.
- Pisua errentan hartuko nuke Eibarko erdialdean. Tel. 618-354218.
- Etxea konpartitzen da Arraten. Tel. 627-040419.
- Logela alokagai. Aukeran neska nahiago. Tel. 686-610074.
- Pisua errentan hartuko nuke Eibarko erdialdean. 2 edo 3 logelakoa. Tel. 648-180233.
- Etxea alokagai Deban hilabete gutzietan (abuztua izan ezik), hilabetea edo asteka. Garajea eta terrazarekin. Itsasora begira. Urgain jatetxearen gaineko azken pisua. Tel. 649-928961.
- Pisua behar da, 2 logelakoa. Eibarko erdigunean. Tel. 657-125654.
- Logela behar da Eibarko erdialdean. Tel. 657-125654.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Karabana salgai. Guztiz ekipatua eta Mutrikuko Santa Elena kanpingean gordeta. 2 girokoa eta 5 plaza. Abanxe finkoa: sukaldea, garbigailua, hozkailua... Preziosa adosteko. Tel. 607-230077. Edu.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia alokagai Urkizuko do-reetan. Tel. 616-959625.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

### 3.2. Errentan

- Garajea alokagai Txomon. Tel. 658-710898.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 636-423493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-532589.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 680-808125.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 686-918962.
- Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako eta hoteleko kamarera jarduteko. 608-474923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. 637-294236.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. 680-873866.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 602-068313.
- Neska euskalduna eskaintzen da Kontabilitate eta Administraritzan lanak egiteko. Orduka edo zapatu goizetan. 634-627461.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. 5 urteko esperientzia eta erreferentziak. 678-294450.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 680-121252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 632-054894.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko, tabernak edo soziedadek garbitzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 660-073781.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta edozein garbiketara lanetarako. Asteburuetan ere bai. 689-436454.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta edozein garbiketara lanetarako. Asteburuetan ere bai. 631-004374.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta edozein garbiketara lanetarako. Interna. 662-012834.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Baita asteburuetan eta orduka ere. Tel. 627-652870.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuetan eta gauzez ere bai. Tel. 608-886701.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuetan eta gauzez ere bai. Tel. 664-111706.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 686-052084.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 650-068883.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 688-302653.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-272774.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 658-191318.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 618-354218.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 652-532589.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita orduka ere. Tel. 679-912841.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-925929.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-004374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 648-180233.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 680-526228.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-610074.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 674-713122.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile eta pintore moduan. Tel. 647-898016.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-253170.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-362251.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 657-396018.

### 4.2. Langile bila

- Estetizista eta podologo behar dira Eibarko ileapaindegi zentro batean. Tel. 678-674250.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Klase partikularrak ematen ditut. DBH, Batxilergoa, Unibertsitatea: Matematikak, Estatistika, Kontabilitatea. Tel. 685-739709.
- Gitarra elektrikoko klaseak ematen dira. Baita etxean ere. Merke. Tel. 679-740061.
- Zure azala zaindu nahi duzu? Doako bi ikastaro eskaintzen dira azala zaindu eta automakillajeari egiteko. Tel. 658-719703.
- Atzerriko hizkuntzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditu. Tel. 651-503971.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Yorkshire txakurkumea salgai. Txiki-ertain tamainakoa. Merke. Tel. 696-509360.
- Jaunartzeko soinekoa salgai. la berria. Tel. 658-191318.
- Bugaboo "all black" edizioko sillatxo salgai. Egoera ezinbohean. 600 euro. Baita Fisher-Price markako bidaiatzeko sehaska ere (60 euro). Tel. 655-709707.
- Nagusiak mugitzeko garabi eta ohe artikulatu ortopedikoak salgai. 1.800 euro. Osagarri guzietan. Tel. 94-4232377, 675-712737 eta 943-702654.

### 6.4. Bestelakoak

- Jostailuak tokia okupatzen dizute etxean eta ez dituzu behar? Nik jasoko ditut. Tel. 665-705978.



# Ignacio Zuloaga Institutua



**EIBAR**

Ate irekien eguna

**Apirilak 17**

Ordua 18:00

**Batxilergoak:** Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Elkartrukeak

**Alemania - Ingalaterra**

Jardifeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

## Zumaia

Etxebizitza berriak  
preziorik onenean

Zumaiako Ardantzabiden  
prezio mugatuko  
32 etxebizitzetako  
bat nahi baduzu,  
zoaz Udaletxera  
eta izena eman.

Epea:

**martxoaren 11tik  
apirilaren 19ra.**



Zumalako Udala

**943 31 68 68**  
www.sukia.com

Finantzatzen du:



**sukia**  
Zure etxean zaude.  
Estás en tu casa.



## ARDANTZABIDE

Argibide gehiago hemen:

**www.ardantzabide.es**

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.

TERRAZA HANDIAK

3 logelako etxeak  
garaje eta trastelekudunak

**234.278€** + bez



# bista eder

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak  
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta  
Hortz-Estetikan  
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75**